

Aurrera Begira

GAZTEEN AURREIKUSPENEI
BURUZKO ADIERAZLEAK

2014



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Gazteria eta Kirol
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Juventud
y Deportes



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

Izenburua: AurreraBegira 2014. Gazteen aurreikuspenei buruzko adierazleak
Gazteen Euskal Behatokiak **egina**
Ikerlariak: Miren Bilbao Gaztañaga, Nieves Corcuera Bilbao eta Oskar Longo Imatz
Diseinu grafikoa eta maketazioa: Neverland, S.L.

Bilbo, 2015eko urtarila



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:
Aitortu - Ez merkataritzarako - Lan eratorririk gabe 4.0 Unported
(<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)



ZER DA AURRERA BEGIRA?

Aurrera Begira Gazteen Euskal Behatokiak urtero burutzen duen ikerketa da. Euskadiko gazteek nola antzematen duten oraina eta, epe laburrean, zeintzuk diren beraien etorkizunerako aurreikuspenak jakitea da ikerketaren helburu nagusia.

Ikerketa hau 2013an sortu zen eta honen bidez gazteen egoera ebaluatzeko eta jarraitzeko tresna erraza eta sintetikoa eskaini nahi zaie bai herritarrei bai gazteriaren arloan erantzukizun politiko edota teknikoak dituzten guztiei.


Aurrera Begira gazteei beraiei egindako inkesta batean oinarritzen da, euren iritziak eta ikuspuntuak zuzenean ezagutu ahal izateko. 2014ko landa lana azaroan burutu zen, lehen inkesta baino urtebete geroago, eta 15 eta 29 urte bitarteko 1512 gazteren erantzunak jaso ziren bertan.

Bigarren emanaldi honetan, ondoko 10 adierazleen bilakaera aztertu da::

- 1 Egungo egoeraren balorazio indizea
- 2 Norberaren poztasun indizea
- 3 Bizitzaren alderdien balantzea
- 4 Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua
- 5 Lana aurkitzea aurreikustea
- 6 Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea
- 7 Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea
- 8 Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea
- 9 Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea
- 10 Etorkizunarekiko konfiantza indizea

Emitza orokorrak eta adierazleen bilakaera azaldu ondoren informazio gehigarria duten hiru eranskin eskaintzen dira:

- 11 adierazleen emaitzak sexuaren, adin taldeen eta lurralde historikoaren arabera.
- Adierazleen eraikuntzari buruzko informazioa.
- Adierazleak eraikitzeko erabili diren inkestako galdera guztien erantzunak, sexuaren, adin taldeen eta lurralde historikoaren arabera.





ZEHAZTASUN TEKNIKOAK

METODOLOGIA

Kuantitatiboa, galdera-sorta egituratu eta itxiko inkesta telefonikoen bidezkoa.

INKESTATURIKO UNIBERTSOA

15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteak.

INKESTA KOPURUA

1512 inkesta (406 Araban, 602 Bizkaian eta 504 Gipuzkoan).

LAGIN AKATSA

$\% \pm 2,5$ (% 95,5eko konfiantza-maila eta $p=q=0,5$).

INKESTAK EGITEKO EPEA

2014ko azaroaren 12tik 21era.

IKERKETAREN DISEINUA ETA EMAITZEN ANALISIA

Gazteen Euskal Behatokia.

LANDA LANA


Ikertalde Grupo Consultor.



EGUNGO EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA

DEFINIZIOA:

Norberaren egoera pertsonalari, gazteen egoera orokorrari eta Euskadiren egoerari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



Adierazlearen interpretazioa:

Adierazlearen emaitza 0 eta 100 bitartekoa da. Eraitza 100era gerturatuz doan heinean, balorazioa positiboagoa da; zenbat eta 0tik hurbilago, aldiz, orduan eta negatiboagoa da.



I. Eranskina. Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka.




II. Eranskina. Adierazlearen eraikuntza.

2

NORBERAREN POZTASUN INDIZEA

DEFINIZIOA:

Norberaren lan, prestakuntza, etxebizitza, familia, astialdi, lagun, harreman sentimental edota sexual, osasun, diru-eskuragarritasun eta independentzia pertsonalarekiko poztasunari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



Adierazlearen interpretazioa:

Adierazlearen emaitza 0 eta 100 bitartekoa da. Eraitza 100era gerturatuz doan heinean, balorazioa positiboagoa da; zenbat eta 0tik hurbilago, aldiz, orduan eta negatiboagoa da.




I. Eranskina. Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka.



II. Eranskina. Adierazlearen eraikuntza.

DEFINIZIOA:

Bizitzaren hamar alderdirekiko poztasun pertsonalaren eta horietako bakoitzari emandako garrantziaren arteko aldea, bi kasuetan 0tik 100era doan eskala erabilita. Aintzat hartu diren hamar alderdiak honako hauek dira: lana, prestakuntza, etxebizitza, familia, astialdia, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasuna, diru-eskuragarritasuna eta norberaren independentzia.



Adierazlearen interpretazioa:

0tik 100era doan eskalan, bizitzaren alderdior ematen zaien garrantzi-maila adierazten dute puntuak, bai eta horiekiko poztasun-maila ere. Zenbat eta 100etik gertuago, orduan eta handiagoa da alderdion garrantzia edota poztasun-maila. Garrantziari dagokion puntuaren eta poztasun-mailari dagokion puntuaren arteko aldeak edo azalerak alderdi horretan dagoen defizit-maila adierazten du. Distantzia zenbat eta handiagoa izan, defizita orduan eta handiagoa da.



I. Eranskina. Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka.



II. Eranskina. Adierazlearen eraikuntza.


LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA

DEFINIZIOA:

Langileen portzentajezko banaketa, urtebeteko epean enplegua galtzeko edo norberaren lan-baldintzek okerrera egiteko arriskuaren pertzepzioaren arabera.

Barruko zirkulua: 2013

Kanpoko zirkulua: 2014



Adierazlearen interpretazioa:

Arrisku-maila altuak esan nahi du enplegua galtzeko aukera handiak edo nahikoak antzematen direla; arrisku-maila ertainak esan nahi du enplegua galtzeko arriskurik ez badago ere, lan-baldintzek okerrera egiteko aukera handiak edo nahikoak daudela; eta arrisku-maila baxuak esan nahi du ez dagoela arriskurik ez enplegua galtzeko, ezta lan-baldintzak okertzeko ere.




I. Eranskina. Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka.



II. Eranskina. Adierazlearen eraikuntza.

DEFINIZIOA:

Urtebeteko epean enplegua aurkitzea espero duten langabeen ehunekoa.

**Adierazlearen interpretazioa:**

Balioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da urtebeteko epean enplegua izatea espero duten langabeen ehunekoa.



I. Eranskina. Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka.




II. Eranskina. Adierazlearen eraikuntza.

PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA

DEFINIZIOA:

Ikasketak bukatutakoan, prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten ikasleen ehunekoa.



Adierazlearen interpretazioa:

Balioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da ikasketak bukatutakoan ikasketei lotutako enplegua aurkituko dutela espero duten ikasleen ehunekoa.



I. Eranskina. Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka.




II. Eranskina. Adierazlearen eraikuntza.

DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA

DEFINIZIOA:

Etorkizunean, joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa.



Adierazlearen interpretazioa:

Balioa zenbat eta handiagoa izan, handiagoa da atzerrira lan egitera joan beharko dutela uste dutenen ehunekoa.



I. Eranskina. Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka.




II. Eranskina. Adierazlearen eraikuntza.

EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA

DEFINIZIOA:

Urtebeteko epean emantzipazio-proiektuak burutu ezin izango dituztela uste duten gazteen ehunekoa, gurasoen etxetik ezin izango direlako irten edo bertara itzuli beharko dutelako.



Adierazlearen interpretazioa:

Balioa zenbat eta handiagoa izan, handiagoa da emantzipazio-aukerak zapuztuta ikusten dituzten gazteen ehunekoa (gurasoen etxetik ezin izango direlako irten edo bertara itzuli beharko dutelako).



I. Eranskina. Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka.




II. Eranskina. Adierazlearen eraikuntza.

GAZTEEN GAITASUNEKIKO KONFIANTZA INDIZEA

DEFINIZIOA:

Zailtasunei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen diren gaitasun batzuk aintzat hartuta (langilea, arduratsua, kualifikatua, parte-hartzailea, ekintzailea, idealista eta autonomoa izatea), Euskadiko gazteek gaitasunok zein mailatan dituzten iritziaren batez besteko puntuazioa 0tik 100era doan eskalan.



Adierazlearen interpretazioa:

Adierazlearen emaitza 0 eta 100 bitartekoa da. Balioak 100era gerturatuz doazen heinean, konfiantza handiagoa dago gazteek arazoei aurre egiteko dituzten gaitasunetan; balioak zenbat eta apalagoak izan, txikiagoa da gazteen gaitasunetan dagoen konfiantza.




I. Eranskina. Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka.



II. Eranskina. Adierazlearen eraikuntza.

DEFINIZIOA:

Norberaren egoerak, gazteenak eta Euskadirenak hurrengo 5 urteetan izango duten bilakaerari buruzko usteen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



Adierazlearen interpretazioa:

Adierazlearen emaitza 0 eta 100 bitartekoa da. Balioak 100era gerturatuz doazen heinean, konfiantza handiagoa dago egoerak epe ertainean hobera egiteko; balioak zenbat eta apalagoak izan, egoera hobetzeko konfiantza txikiagoa da.



I. Eranskina. Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka.



II. Eranskina. Adierazlearen eraikuntza.



ONDORIOAK

ORAINAK BALORAZIO POSITIBOA JASO DU

- ✓ Gazteek 62 puntu eman dizkiote egungo egoerari 0tik 100era doan eskalan. Horrek esan nahi du gazteak zertxobait baikorrangoak direla 2014an, 2013an baino (60 puntu 2013an). Euskadiko egoera orokorra bai eta gazteria osoarena ere hobeto baloratzen direlako dator igoera txiki hori. Dena den, norberaren egoeraren balorazioa Euskadiri dagokiona baino hobe da eta Euskadirena, halaber, gazteen taldeari dagokiona baino hobe.
- ✓ Norberaren poztasun indizea positiboa da, 78 puntutakoa 0tik 100erako eskalan, hala ere 2013an baino pixka bat baxuagoa. Gazteengan poztasun handien eragiten duten bizitzaren alderdiak familia, osasuna, lagunak eta bizi diren etxebizitza dira. Poztasun gutxien eragiten duena eskura duten dirua da (nahiz eta honekin ere gehienak pozik egon). Aztertutako alderdi bakoitzak puntu bat edo bi gutxiago jaso dituelako gertatu da 2014an izandako jaitsiera txiki hori.
- ✓ Alderdi horiek guztiak oso garrantzitsuak dira gazteentzat, baina lehentasuna ematen diete osasunari eta familiari eta horiek dira, hain zuzen ere, gazteengan poztasun handien sortarazten dutenak. Bizitzaren alderdi bati emandako garrantzi-mailaren eta alderdi horretan sentitutako poztasun-mailaren arteko alderik edo desorekarik handienak lanean eta diruan antzeman daitezke, 2013an gertatzen zen bezala.

LANAREN INGURUKO AURREIKUSPENEK HOBERA EGIN DUTE

- ✓ Gazte okupatuen heren batek baino apur bat gehiagok (% 36) urtebeteko epean enplegua galtzeko arrisku-maila altua dute, % 11k arrisku-maila ertaina dute, ez dutelako uste probablea denik lana galtzea baina bai lan-baldintzek okerrera egitea; erdiak baino gehixeagok, aldiz, arrisku-maila baxua dute (% 53), ez dutelako uste urtebeteko epean enplegua galduko dutenik, ezta euren lan-baldintzak okertuko direnik ere. Azken ehuneko hori, arrisku-maila baxua dutenena, hamar puntu igo da 2013tik 2014ra.
- ✓ Langabezian dauden hamar gaztetik seik urtebeteko epean lana aurkituko dutela uste dute. Langabeen artean enplegua aurkitzeko itxaropena handitu da azken urtean eta 2013an % 54 izatetik 2014an % 60 izatera pasatu da.
- ✓ Ikasleak ere baikorrangoak ageri dira 2014an, 2013an baino. Hamar puntu igo da (% 46tik % 56ra) ikasketak bukatzen dituztenean formazioari lotutako lana aurkituko dutela uste duten ikasleen ehunekoa.
- ✓ Bestalde, pixka bat jaitsi da (% 16tik % 14ra) etorkizunean, nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera joan beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa, hau da, derrigorrezko emigrazioa. Horren azalpena ez dator gazteek gutxiago antzematen dutelako emigratu beharko dutela, baizik eta gutxitu egin direlako joan nahi ez dutenak, hau da, gazteek aurreko urtean baino prestasun handiagoa erakutsi dute atzerrira lan egitera joateko.



EMANTZIPAZIOARI BURUZKO AURREIKUSPENAK EZ DUTE HOBERA EGIN

- ✓ Gazteen emantzipazio-proiektuak ezin omen dira epe laburrean gauzatu beraiek nahi duten moduan: gurasoen etxetik irten ezin izango direlako edo bertara bueltatu behar izango dutelako, emantzipazioa zapuztuko dela aurreikusten dute ia gazteen erdiek (% 48) eta uste hori aurreko urtean (% 45) baino pixka bat zabalduago dago 2014an.
- ✓ Frustrazioa handitu da gehiago direlako, alde batetik, etxetik irten nahi duten baina ezin dutenak, eta bestetik, nahi ez badute ere, etxera bueltatu beharko dutela uste duten gazte emantzipatuak. Azken horiek, nolanahi ere, oso pisu txikia dute adierazlean (gazte guztien % 2 baino ez dira eta).

ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA HANDITU DA

- ✓ Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizeak, gazteriaren gaitasunetan konfiantza izatea adierazten duena (zailtasunei aurre egiteko funtsezkoa da konfiantza izatea), 69 puntu jaso du Otik 100era doan eskalan, aurreko urtean baino hiru puntu gehiago. Gazteria oro har baloratzean gazteek beraiek gehien nabarmentzen dituzten ezaugarriak prestakuntza-maila eta lanerako gaitasuna dira.
- ✓ Etorkizunarekiko konfiantza indizeak joera baikorra adierazten du. Bost urteko epean egoera hobetzeko konfiantza hamar puntu igo da eta igoera horretan eraginik handiena hauexek izan dute: norberaren egoera eta gazteria osoaren egoera hobetuko direla uste dutenek, 2013an baino nahikoa gehiago baitira.

Ondoriozta dezakegu, beraz, gaur egun gazteek poztasun-maila handia dutela beren bizitzari dagokionez, 2013an gertatzen zen bezala. Epe laburrean lanareriko aurreikuspenak lehen baino baikorragoak dira, bai lana aurkitzeko, enplegua ikasitakoarekin lotuta egoteko, zein ez galtzeko; baina aurreikuspenak ez dira hobetu emantzipazioari erreparatzen badiogu, 2013an baino zailago ikusten baita gogoko emantzipazio-proiektuak aurrera eramatea. Dena den, gazteek aurreko urtean baino konfiantza handiagoa dute etorkizunean bai eta gazteen gaitasunetan ere egungo egoerari aurre egiteko.



I. ERANSKINA

Datuak sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka

	2014										2013
	Neurria	Gazteak guztira	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa			Gazteak guztira
			Gizon gazteak	Emakume gazteak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Egungo egoeraren balorazio indizea	(0-100)	62	62	62	69	62	57	62	61	63	60
Norberaren poztasun indizea	(0-100)	78	77	80	79	79	77	78	78	79	80
Bizitzaren alderdien balantzea											
Osasunari emandako garrantzia	(0-100)	96	95	96	95	96	96	95	95	96	96
Familiari emandako garrantzia	(0-100)	94	93	96	95	94	94	93	94	94	94
Lanari emandako garrantzia	(0-100)	89	87	91	88	88	90	88	89	88	89
Adiskideei emandako garrantzia	(0-100)	87	86	89	88	88	86	87	87	88	88
Etxebizitzari emandako garrantzia	(0-100)	86	85	87	86	87	85	85	86	85	86
Formakuntzari emandako garrantzia	(0-100)	86	84	88	87	85	85	85	86	85	86
Independentzia pertsonalari emandako garrantzia	(0-100)	85	83	88	83	85	88	85	86	85	86
Harreman sentimentalei edota sexualei emandako garrantzia	(0-100)	83	83	83	81	83	84	83	83	84	85
Astaldiari emandako garrantzia	(0-100)	82	81	84	82	82	83	83	82	83	84
Diruari emandako garrantzia	(0-100)	78	76	80	77	79	78	76	78	78	79
Osasunarekiko poztasuna	(0-100)	88	87	88	89	88	87	87	88	88	88
Familiarekiko poztasuna	(0-100)	89	89	90	89	89	90	88	89	91	90
Lanarekiko poztasuna (lan egiten dutenek bakarrik)	(0-100)	74	72	75	-	77	73	73	73	76	74
Adiskideekiko poztasuna	(0-100)	85	84	86	87	85	83	84	85	85	86
Bizi diren etxebizitzarekiko poztasuna	(0-100)	84	83	85	88	86	80	83	84	84	85
Ikasketekiko, formakuntzarekiko poztasuna	(0-100)	75	73	77	77	75	74	74	74	76	76
Independentzia pertsonalarekiko poztasuna	(0-100)	74	72	76	77	73	72	75	73	75	75
Harreman sentimental edota sexuarekiko poztasuna	(0-100)	79	77	81	77	80	80	79	79	79	81
Astialdiarekiko poztasuna	(0-100)	74	74	74	77	73	72	74	74	74	76
Duten diruarekiko poztasuna	(0-100)	63	62	64	74	62	55	63	61	67	65
Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua											
Arrisku-maila altua	%	36	36	36	-	46	32	32	35	39	39
Arrisku-maila ertaina	%	11	10	13	-	6	13	15	9	13	18
Arrisku-maila baxua	%	53	54	52	-	48	55	54	56	48	43
Lana aurkitzea aurreikustea	%	60	60	60	86	55	61	60	57	66	54
Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea	%	56	59	53	58	51	62	60	53	60	46
Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea	%	14	14	14	15	16	13	13	15	14	16
Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea	%	48	49	47	52	58	36	46	52	42	45
Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea	(0-100)	69	68	70	70	69	68	70	66	73	66
Etorkizunarekiko konfiantza indizea	(0-100)	74	74	75	73	74	76	73	72	76	64



II. ERANSKINA

Adierazleen erainkuntza

1

Egungo egoeraren balorazio indizea (EEBI)

Adierazlea hiru galderatan oinarritzen da. Norberaren egoera pertsonalari (A), Euskadiko gazteen egungo egoerari (B) eta Euskadiren egungo egoerari (C) 0tik 10era bitarteko puntuazioa ematea eskatu zaie inkestatuei.

Adierazlea kalkulatzeko, alderdi bakoitzari emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egin da, eta emaitza 10ez biderkatu da, 0tik 100era doan eskalara egokitzeko.

$$EEBI = [(A+B+C) / 3] \times 10$$

2

Norberaren poztasun indizea (NPI)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da. Euren bizitzaren alderdi hauetako bakoitzarekin duten poztasun-mailari 0tik 10era bitarteko puntuazioa ematea eskatu zaie inkestatuei: lanarekin (A), prestakuntzarekin (B), etxebizitzarekin (C), familiarekin (D), astialdiarekin (E), adiskideekin (F), harreman sentimental edota sexuarekin (G), osasunarekin (H), diru-eskuragarritasunarekin (I) eta independentzia pertsonalarekin (J).

Adierazlea kalkulatzeko, alderdi bakoitzari emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egin da, eta emaitza 10ez biderkatu da, 0tik 100era doan eskalara egokitzeko.


$$NPI = [(A + B + C + D + E + F + G + H + I + J) / 10] \times 10$$

3

Bizitzaren alderdien balantzea (BAB)

Balantzea kalkulatzeko, bi galdera hartzen dira oinarri. Galderotan, zera eskatu zaie inkestatuei: batetik (A), bizitzaren hainbat alderdirekin duten poztasun-maila pertsonala baloratzea, 0tik 10era doan eskalan (lanarekin (A1), prestakuntzarekin (A2), etxebizitzarekin (A3), familiarekin (A4), astialdiarekin (A5), adiskideekin (A6), harreman sentimental edota sexuarekin (A7), osasunarekin (A8), diru-eskuragarritasunarekin (A9) eta independentzia pertsonalarekin (A10)); eta, bestetik (B), alderdi horietako bakoitzari ematen zaion garrantzia (lanari (B1), prestakuntzari (B2), etxebizitzari (B3), familiari (B4), astialdiari (B5), adiskideei (B6), harreman sentimental edota sexuarekin (B7), osasunari (B8), diru-eskuragarritasunari (B9) eta independentzia pertsonalari (B10)), berriro ere 0tik 10erako eskalan.

Balantzea kalkulatzeko, balio guztiak 10ez biderkatu dira, 0tik 100era doan eskalara egokitzeko, eta, ondoren, horien adierazpen grafikoa egin da, bizitzaren alderdi horiei dagozkien poztasun-mailaren eta garrantzi-mailaren batez bestekoen arteko aldea agerian uzteko.



4

Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua (LGBOA)

Gazte okupatuei egindako bi galderatan oinarritzen da adierazlea. Lehen galderan (A), inkestatuei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebeteko epean enplegua galtzea. Bigarren galderan (B) lana galtzeko arriskua aurreikusten ez dutenei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebeteko epean euren lan-baldintzek okerrera egitea.

Adierazlea kalkulatzeko, hiru arrisku-maila ezarri dira: altua, ertaina eta baxua. Maila altuan, lana seguruenik edo agian galduko dutela uste dutenak kokatuko lirateke; maila ertainean, lana galduko dutela uste ez badute ere, seguruenik edo agian lan-baldintzak okertuko zaizkiela uste dutenak kokatuko lirateke; maila baxuan kokatuko lirateke uste ez dutenak lana galduko dutenik ezta lan-baldintzek okerrera egingo dutenik ere. Erantzun ez dutenen datuak ez dira aintzat hartu.

LGBOA altua = (A = Seguru aski bai edo Agian bai)

LGBOA ertaina = (A = Ez duzu uste edo Seguruenik ez & B= Seguru aski bai edo Agian bai)

LGBOA baxua = (A = Ez duzu uste edo Seguruenik ez & B= Ez duzu uste edo Seguruenik ez)

Portzentajeak 100era biribildu dira erantzun ez dutenen eragina ekiditeko.

5

Lana aurkitzea aurreikustea (LAA)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da (A), eta bertan langabeei ondokoa eskatu zaie: adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebeteko epean enplegua aurkitzea.

Adierazlea kalkulatzeko, urtebeteko epean seguru aski edo agian enplegua aurkituko dutela uste dutenen ehunekoak hartu dira kontuan.

LAA = (A= Seguru aski bai edo Agian bai)

6

Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea (PLLIA)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da (A), eta bertan ikasleei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) euren prestakuntzarekin lotutako enplegua aurkitzea, ikasketak amaitutakoan.

Adierazlea kalkulatzeko, prestakuntzari lotutako enplegua seguru aski edo agian lortuko dutela uste dutenen ehunekoak hartu dira kontuan.

PLLIA = (A = Seguru aski bai edo Agian bai)

7

Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea (DEBA)

Gazte guztiei eginiko bi galderatan oinarrituta dago. Lehen galderan (A) inkestatuei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) etorkizunean atzerrira lan egitera joan behar izatea. Bigarrenean (B) pertsona berberei galdetu zaie zein neurritan joan nahi izango luketen atzerrira lanera (asko, nahikoa, gutxi, batere ez).

Adierazlea kalkulatzeko, seguru aski edo agian atzerrira joan beharko dutela baina joateko gogo gutxi edo batere ez dutela dioten lagunak bakarrik hartu dira kontuan.

DEBA = (A = Seguru aski bai edo Agian bai & B= Gogo gutxi edo Batere ez)

Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea (EZA)

Adierazlea lau galderatan oinarritzen da. Lehen bi galderak gazte ez emantzipatuei egin zaizkie; hirugarrena eta laugarrena, aldez, gazte emantzipatuei.

Lehen galderan (A) gazte ez emantzipatuei eskatu zaie adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebetean emantzipatzea, eta bigarren (B), zein neurritan nahi duten emantzipatu (asko, nahikoa, gutxi, batere ez). Hirugarren galderan (C), gazte emantzipatuei eskatu zaie adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebetean gurasoekin bizitzera itzuli behar izatea, eta laugarrenean (D) zein neurritan (asko, nahikoa, gutxi, batere ez) nahi duten gurasoekin bizitzera bueltatu.

Adierazlea kalkulatzeko, kontuan hartu da, emantzipatu gabeko gazteen artean, urtebeteko epean euren kabuz bizitzea ez dela probablea uste dutenen ehunekoa, nahiz eta emantzipatzeko gogoak izan. Era berean, kontuan hartu da, emantzipatutako gazteen artean, urtebeteko epean seguru aski edo agian gurasoen etxera bueltatu behar izango dutenen ehunekoa, horretarako gogo gutxi edo batere ez izan arren.

EZA = (A = Ez duzu uste edo Seguruenik ez & B = Asko edo Nahikoa) + (C = Seguru aski bai edo Agian bai & D = Gutxi edo Batere ez)

Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea (GGKI)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da. Bertan inkestatuei galdetu zaie, euren ustez, zein neurritan (oso, nahikoa, ez oso edo batere ez) egungo Euskadiko gazteak diren langileak, arduratsuak, kualifikatuak, parte-hartzaileak eta gai publikoez kezkatuak, ekintzaileak, idealistak, autonomoak eta bere kabuz moldatzeko gai.

Adierazlea kalkulatzeko, adierazitako ezaugarrietako bakoitzean kenketa egin da gazteek ezaugarri horiek neurri handian edo nahikoan dituztela uste dutenen eta gutxi edo batere ez dituztela uste dutenen ehunekoen artean. Erantzunik eman ez dutenen ehunekoak ez dira aintzat hartu.

LANGILEA (L) = [(% Oso + Nahikoa) - (% Ez oso + Batere ez)]

ARDURATSUA (AR) = [(% Oso + Nahikoa) - (% Ez oso + Batere ez)]

KUALIFIKATUA (K) = [(% Oso + Nahikoa) - (% Ez oso + Batere ez)]

PARTE-HARTZAILEA (P) = [(% Oso + Nahikoa) - (% Ez oso + Batere ez)]

EKINTZAILEA (E) = [(% Oso + Nahikoa) - (% Ez oso + Batere ez)]

IDEALISTA (I) = [(% Oso + Nahikoa) - (% Ez oso + Batere ez)]

AUTONOMOA (AU) = [(% Oso + Nahikoa) - (% Ez oso + Batere ez)]

Ondoren, kendura bakoitzari 100 gehitu zaio, zenbaki negatiboak ekiditeko, hau da, L+100; AR+100; K+100; P+100; E+100; I+100; AU+100.

Adierazle partzial horien balioa 0 eta 200 artekoa da. 100etik beherako balioek adierazten dute ez dela uste Euskadiko gazteek ezaugarri hori dutenik; 100etik gorakoak izanez gero, ordea, gure gazteen ezaugarri orokorrak direla uste izango da.

Azkenik, aurreko adierazle partzialen batez besteko aritmetikoa kalkulatu da. Eraitza zati bi egin da, 0-100 eskalara egokitze aldera.

GGKI = ([(L+100) + (AR+100) + (K+ 100) + (P+100) + (E+100) + (I+100) + (AU+100)] / 7) / 2

Etorkizunarekiko konfiantza indizea (EKI)

Adierazlea hiru galderatan oinarritzen da. Lehen galderan (A), bost urteko epean egoera pertsonala hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie inkestatuei. Bigarrenean (B), Euskadiko gazteen egoera hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie. Eta hirugarrenean (C) Euskadiko egoera orokorra hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie.

Adierazlea kalkulatzeko, galdera bakoitzean, kenketa egin da egoera hobetuko dela uste dutenen eta okertuko dela uste dutenen ehunekoen artean. Ez dira kontuan hartu egoerak berdin jarraituko duela dioten ehunekoak, ezta erantzunik eman ez dutenak ere.

NORBERAREN EGOERARI BURUZKO AURREIKUSPENA (NEA) = (% Hobetuko da - % Okertuko da) A galderan

GAZTEEN EGOERARI BURUZKO AURREIKUSPENA (GEA) = (% Hobetuko da - % Okertuko da) B galderan


EUSKADIREN EGOERARI BURUZKO AURREIKUSPENA (EEA) = (% Hobetuko da - % Okertuko da) C galderan

Ondoren, kendura bakoitzari 100 gehitu zaio, zenbaki negatiboak ekiditeko, hau da, NEA+100, GEA+100 eta EEA+100.

Adierazle partzial hauen balioa 0 eta 200 artekoa da. 100etik beherako balioek aurreikuspen ezkorrak adierazten dituzte; 100etik gorakoek, aurreikuspen baikorrak.

Azkenik, aurreko hiru adierazle partzialen batez besteko aritmetikoa kalkulatu da. Eraitza zati bi egin da, 0-100 eskalara egokitze aldera.

$EKI = ([(NEA+100) + (GEA +100) + (EEA + 100)] / 3) / 2$





III. ERANSKINA

Adierazleak eraikitze erabilitako oinarriko datuak

EGUNGO EGOERAREN BALORAZIOA ETA ETORKIZUNERAKO BILAKAERAREN AURREIKUSPENA

NORBERAREN EGOERA

0 eta 10 arteko eskala erabiliz, zeinetan 0ak oso txarto eta 10ak oso ondo esan nahi duten, nola baloratzen duzu zure egoera pertsonala gaur egun?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Batezbestekoa (0-10)	7,2	7,1	7,2	7,7	7,2	6,7	7,1	7,0	7,4

Zure egungo egoera, orain dela bost urtekoarekin konparatuz gero, uste duzu hobetu egin dela, berdin jarraitzen duela ala okertu dela?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hobetu da	45,4	44,2	46,6	51,8	45,7	40,5	46,1	43,5	48,2
Berdin jarraitzen du	28,4	31,6	24,9	30,6	30,5	25,0	29,2	26,9	30,3
Okertu da	24,5	22,9	26,2	16,3	21,6	32,8	23,5	27,8	19,8
Ed/Ee	1,7	1,2	2,2	1,2	2,2	1,7	1,3	1,9	1,7
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Eta, zure ustez, datozen bost urteetan, zure egoera pertsonala hobetuko da, berdin jarraituko du edo okertuko da?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hobetuko da	69,5	68,3	70,7	70,4	70,0	68,5	65,2	72,4	66,9
Berdin jarraituko du	18,2	19,6	16,7	18,8	17,0	18,6	19,6	16,0	20,9
Okertuko da	7,5	7,1	7,9	7,3	10,1	5,7	8,6	7,1	7,8
Ed/Ee	4,8	5,0	4,6	3,5	2,9	7,2	6,6	4,5	4,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

GAZTERIA OSOAREN EGOERA

0 eta 10 arteko eskala berriro erabiliz (0ak oso txarto eta 10ak oso ondo esan nahi dute), nola baloratzen duzu Euskadiko gazteen egoera orokorra gaur egun?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Batezbestekoa (0-10)	5,4	5,4	5,3	6,3	5,3	4,7	5,3	5,3	5,5

Eta, zure ustez, datozen bost urteetan, Euskadiko gazteen egoera orokorra hobetuko da, berdin jarraituko du edo okertuko da?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hobetuko da	48,4	46,9	50,0	41,7	46,4	54,9	48,7	51,0	44,2
Berdin jarraituko du	30,5	31,9	29,2	33,0	34,0	26,1	30,9	28,8	33,1
Okertuko da	16,9	17,2	16,6	21,2	17,3	13,6	16,9	15,8	18,7
Ed/Ee	4,1	4,1	4,2	4,1	2,4	5,5	3,4	4,4	4,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

EUSKADIKO EGOERA

Berriro ere 0 eta 10 arteko eskala erabiliz (0ak oso txarto eta 10ak oso ondo esan nahi dute), nola baloratzen duzu Euskadiko egoera orokorra gaur egun?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Batezbestekoa (0-10)	6,1	6,1	6,1	6,6	6,0	5,8	6,0	6,1	6,1

Eta datozen bost urteetan uste duzu Euskadiko egoera hobetuko dela, berdin jarraituko duela edo okertuko dela?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hobetuko da	60,5	59,6	61,4	59,3	60,0	61,7	60,7	61,8	58,1
Berdin jarraituko du	28,2	28,7	27,6	30,6	28,8	26,0	26,5	28,0	29,2
Okertuko da	7,8	8,2	7,4	7,1	8,0	8,1	10,1	6,4	8,9
Ed/Ee	3,6	3,5	3,6	3,0	3,2	4,3	2,7	3,7	3,8
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

BIZITZAREN HAINBAT ALDERDIRI EMANDAKO GARRANTZIA ETA HORIEKIKO SENTITUTAKO POZITASUNA

Orain zeure buruan pentsatuz, esadazu mesedez zenbateko garrantzia ematen diozun ondoko gauza bakoitzari, 0 eta 10 arteko eskala berriro oinarri hartuta. Eskala horretan 0ak esan nahi du ez diozula batere garrantzirik ematen eta 10ak oso garrantzi handia ematen diozula.

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Osasunari	9,6	9,5	9,6	9,5	9,6	9,6	9,5	9,5	9,6
Familiari	9,4	9,3	9,6	9,5	9,4	9,4	9,3	9,4	9,4
Lanari	8,9	8,7	9,1	8,8	8,8	9,0	8,8	8,9	8,8
Lagunei	8,7	8,6	8,9	8,8	8,8	8,6	8,7	8,7	8,8
Etxebizitzari	8,6	8,5	8,7	8,6	8,7	8,5	8,5	8,6	8,5
Ikasketei, prestakuntzari	8,6	8,4	8,8	8,7	8,5	8,5	8,5	8,6	8,5
Independentzia pertsonalari	8,5	8,3	8,8	8,3	8,5	8,8	8,5	8,6	8,5
Harreman sentimental edota sexualei	8,3	8,3	8,3	8,1	8,3	8,4	8,3	8,3	8,4
Astaldiari, denbora libreari	8,2	8,1	8,4	8,2	8,2	8,3	8,3	8,2	8,3
Diruari	7,8	7,6	8,0	7,7	7,9	7,8	7,6	7,8	7,8

0 eta 10 arteko eskalarekin jarraituko dugu, baina oraingoan 0ak ez zaudela batere pozik eta 10ak oso pozik zaudela esan nahi dute. Esango didazu zenbateraino zauden pozik zure bizitzaren ondoko alderdi hauekin?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Zure osasunarekin	8,8	8,7	8,8	8,9	8,8	8,7	8,7	8,8	8,8
Zure familiarekin	8,9	8,9	9,0	8,9	8,9	9,0	8,8	8,9	9,1
Zure lanarekin (lan ordaindua dutenei bakarrik)	7,4	7,2	7,5	-	7,7	7,3	7,3	7,3	7,6
Zure lagunekin	8,5	8,4	8,6	8,7	8,5	8,3	8,4	8,5	8,5
Bizi zaren etxebizitzarekin	8,4	8,3	8,5	8,8	8,6	8,0	8,3	8,4	8,4
Zure ikasketekin edo zure prestakuntzarekin	7,5	7,3	7,7	7,7	7,5	7,4	7,4	7,4	7,6
Zure independentzia pertsonalarekin	7,4	7,2	7,6	7,7	7,3	7,2	7,5	7,3	7,5
Zure harreman sentimental edota sexuarekin	7,9	7,7	8,1	7,7	8,0	8,0	7,9	7,9	7,9
Zure astaldiarekin, denbora librearekin	7,4	7,4	7,4	7,7	7,3	7,2	7,4	7,4	7,4
Hilean duzun diruarekin	6,3	6,2	6,4	7,4	6,2	5,5	6,3	6,1	6,7

LAN-EMIGRAZIOA

Uste duzu etorkizunean atzerrira lan egitera joango zarela?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai, aukera asko daude hori gertatzeko	19,2	18,6	19,8	21,7	23,2	14,2	17,4	19,3	19,8
Agian bai, nahikoa aukera daude	29,9	32,3	27,4	39,9	30,9	21,9	26,2	30,2	31,2
Ez duzu uste, aukera gutxi daude	36,6	36,2	37,0	30,1	35,5	42,0	41,0	35,9	35,5
Seguruenik ez, ez dago batere aukerarik	12,4	11,0	13,9	7,3	9,3	18,5	14,2	12,5	11,4
Ed/Ee	2,0	2,0	2,0	1,0	1,1	3,3	1,2	2,1	2,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke atzerrira joan lan egitera: asko, nahikoa, gutxi edo batere ez?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Asko	20,1	20,2	19,9	26,4	21,9	14,0	20,1	19,7	20,6
Nahikoa	29,2	31,3	27,0	34,2	29,0	25,8	25,8	30,0	29,5
Gutxi	30,0	29,0	31,1	26,1	30,6	32,4	30,4	30,5	29,1
Batere ez	19,7	18,1	21,4	12,4	17,9	26,4	22,7	18,9	19,5
Ed/Ee	1,0	1,3	0,6	0,9	0,6	1,3	1,0	0,8	1,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

LANA

Uste duzu hemendik urtebetera zure lana galduko duzula, zuk hala nahi gabe? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai, aukera asko daude hori gertatzeko	17,4	16,0	18,8	-	29,0	13,0	17,6	18,4	16,0
Agian bai, nahikoa aukera daude	17,2	18,8	15,5	-	17,0	17,4	13,0	14,9	22,3
Ez duzu uste, aukera gutxi daude	47,8	46,4	49,2	-	40,7	50,1	52,3	48,1	45,4
Seguruenik ez, ez dago batere aukerarik	14,9	16,1	13,8	-	13,3	15,8	14,9	14,7	15,2
Ed/Ee	2,7	2,7	2,7	-	0,0	3,7	2,2	3,9	1,1
Guztira	100	100	100	-	100	100	100	100	100

* Lan ordaindua dutenei bakarrik galdetu zaie

Eta uste duzu hemendik urtebetera zure lan baldintzak okertuko direla? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai, aukera asko daude hori gertatzeko	4,0	4,2	3,8	-	3,4	4,2	7,7	1,9	5,3
Agian bai, nahikoa aukera daude	12,8	10,9	14,7	-	6,9	14,1	14,1	11,2	14,6
Ez duzu uste, aukera gutxi daude	62,4	62,4	62,3	-	64,5	61,9	57,0	66,6	58,7
Seguruenik ez, ez dago batere aukerarik	16,8	19,8	13,9	-	23,5	15,1	18,0	15,2	18,6
Ed/Ee	4,0	2,7	5,3	-	1,7	4,7	3,2	5,1	2,9
Guztira	100	100	100	-	100	100	100	100	100

* Lana galduko dutenik uste ez duten langileei bakarrik galdetu zaie

Uste duzu hemendik urtebetera lana aurkituko duzula? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai, aukera asko daude hori gertatzeko	20,8	19,8	22,0	20,5	17,1	22,6	26,0	17,4	25,9
Agian bai, nahikoa aukera daude	38,8	39,8	37,7	65,0	37,5	38,0	33,5	39,4	40,0
Ez duzu uste, aukera gutxi daude	35,9	34,4	37,7	7,5	44,5	33,5	30,8	41,2	26,5
Seguruenik ez, ez dago batere aukerarik	3,2	3,8	2,6	7,0	0,9	4,1	7,8	1,0	6,1
Ed/Ee	1,2	2,3	0,0	0,0	0,0	1,9	1,9	1,0	1,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Langabezia daudenei bakarrik galdetu zaie

Uste duzu ikasketak amaitzean zure prestakuntzari lotutako lana aurkituko duzula? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai, aukera asko daude hori gertatzeko	18,0	20,0	16,0	16,5	17,1	25,8	16,6	16,4	21,3
Agian bai, nahikoa aukera daude	38,0	38,8	37,2	41,6	33,5	36,1	43,0	36,2	38,4
Ez duzu uste, aukera gutxi daude	37,4	34,8	40,1	36,5	41,2	31,1	36,7	39,6	34,1
Seguruenik ez, ez dago batere aukerarik	5,4	5,8	4,9	3,5	7,8	6,1	2,9	6,6	4,6
Ed/Ee	1,2	0,7	1,8	2,0	0,4	0,9	0,9	1,2	1,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Ikasleei bakarrik galdetu zaie

EMANTZIPAZIOA

Uste duzu hemendik urtebetera zure kontura bizitzera joango zarela? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai, aukera asko daude hori gertatzeko	9,7	10,2	9,1	9,1	6,6	14,3	9,5	8,1	12,5
Agian bai, nahikoa aukera daude	13,5	13,3	13,8	10,8	9,9	21,4	14,1	11,7	16,4
Ez duzu uste, aukera gutxi daude	41,5	40,3	42,9	37,9	46,2	40,0	40,2	43,8	38,2
Seguruenik ez, ez dago batere aukerarik	34,8	35,8	33,7	42,0	37,1	23,2	35,7	36,2	32,1
Ed/Ee	0,5	0,4	0,5	0,2	0,3	1,0	0,6	0,2	0,8
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Emantzipatuta ez daudenei galdetu zaie

Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke zure kontura bizitzera joan: asko, nahikoa, gutxi edo batere ez? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Asko	44,9	40,9	49,3	30,7	43,9	63,4	43,2	45,0	45,4
Nahikoa	37,1	39,8	34,1	43,0	37,0	30,1	38,4	38,0	35,2
Gutxi	12,2	14,6	9,4	17,5	14,0	3,3	12,9	12,3	11,6
Batere ez	4,9	3,7	6,4	7,2	4,6	2,5	5,1	4,1	6,3
Ed/Ee	1,9	1,0	0,8	1,6	0,4	0,6	0,4	0,6	1,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Emantzipatuta ez daudenei galdetu zaie

Uste duzu hemendik urtebetera zure familiaren edo gurasoen etxera bizitzera bueltatuko zarela? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai, aukera asko daude hori gertatzeko	4,8	4,8	4,9	19,4	11,5	3,7	4,3	7,5	1,0
Agian bai, nahikoa aukera daude	7,9	11,1	5,4	0,0	10,7	7,6	9,6	6,6	9,1
Ez duzu uste, aukera gutxi daude	48,5	42,7	53,1	80,6	51,8	47,7	51,7	50,1	44,6
Seguruenik ez, ez dago batere aukerarik	35,0	36,9	33,5	0,0	25,9	36,7	31,1	31,8	41,8
Ed/Ee	3,7	4,5	3,0	0,0	0,0	4,3	3,2	4,0	3,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Emantzipatuta daudenei galdetu zaie

Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke zure familia edo gurasoen etxera bizitzera bueltatu: asko, nahikoa, gutxi edo batere ez? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Asko	3,6	4,0	3,3	44,9	7,3	2,6	2,1	5,9	0,9
Nahikoa	3,9	5,1	3,0	35,7	11,7	2,4	5,5	3,5	3,8
Gutxi	37,8	42,6	34,1	19,4	38,5	37,9	43,9	37,1	35,8
Batere ez	50,6	44,7	55,3	0,0	42,4	52,4	47,4	48,7	55,3
Ed/Ee	4,0	3,6	4,3	0,0	0,0	4,7	1,1	4,8	4,3
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Emantzipatuta daudenei galdetu zaie

GAZTEEN GAITASUNEKIKO BALORAZIOA

Gaurko gazteei buruzko iritzia

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Langileak									
Oso	16,0	14,2	17,8	8,7	18,0	19,6	17,3	14,4	17,8
Nahikoa	59,0	59,2	58,8	59,8	59,6	58,0	60,4	57,2	61,3
Ez oso	20,4	21,5	19,3	24,7	19,8	17,9	18,2	23,3	16,8
Batere ez	1,9	2,3	1,4	2,2	1,0	2,3	1,2	1,9	2,1
Ed/Ee	2,7	2,8	2,7	4,5	1,6	2,3	3,0	3,1	1,9
Arduratsuak									
Oso	12,9	11,6	14,4	8,1	15,0	14,8	12,8	12,2	14,1
Nahikoa	59,8	60,4	59,2	60,1	59,9	59,6	61,4	56,7	64,1
Ez oso	23,5	24,3	22,7	28,2	22,6	20,8	22,7	26,5	19,1
Batere ez	1,8	2,0	1,5	1,3	1,1	2,7	1,4	1,9	1,8
Ed/Ee	1,9	1,7	2,2	2,3	1,4	2,1	1,7	2,6	0,9
Kualifikatuak, prestatuak									
Oso	32,4	30,4	34,5	23,4	35,3	36,6	28,7	30,4	37,3
Nahikoa	52,1	54,0	50,2	59,7	50,0	48,4	56,0	51,9	50,8
Ez oso	12,5	12,4	12,7	14,0	12,4	11,5	12,3	14,7	9,2
Batere ez	0,6	0,8	0,4	0,7	0,5	0,6	0,2	0,7	0,8
Ed/Ee	2,3	2,4	2,2	2,2	1,8	2,9	2,8	2,4	2,0
Parte-hartzaileak, arazo publikoez arduratuak									
Oso	16,9	16,4	17,4	18,9	15,5	16,5	20,7	14,6	18,8
Nahikoa	43,2	41,3	45,2	41,8	47,5	40,9	42,8	43,6	42,7
Ez oso	33,6	35,5	31,7	32,6	32,1	35,6	32,2	34,6	32,8
Batere ez	4,4	5,0	3,8	3,6	4,4	5,0	3,2	4,8	4,4
Ed/Ee	1,9	1,8	1,9	3,1	0,5	2,1	1,0	2,4	1,3
Ekintzaileak									
Oso	12,6	11,3	13,9	15,4	12,5	10,7	10,1	11,5	15,5
Nahikoa	44,4	44,0	44,7	48,4	41,9	43,3	45,4	40,1	50,7
Ez oso	36,3	37,6	35,0	31,9	37,5	38,5	38,5	39,9	29,5
Batere ez	3,6	3,9	3,3	1,9	4,5	4,1	2,2	4,9	2,2
Ed/Ee	3,1	3,3	3,0	2,4	3,6	3,4	3,7	3,7	2,0
Idealistak									
Oso	17,5	18,8	16,1	18,0	15,7	18,7	14,8	17,3	19,3
Nahikoa	48,2	47,2	49,3	51,8	49,5	44,7	51,6	44,4	52,8
Ez oso	28,1	27,7	28,7	22,6	29,8	30,9	26,6	31,6	23,4
Batere ez	1,8	1,8	1,8	2,1	2,0	1,4	1,3	2,3	1,2
Ed/Ee	4,3	4,5	4,1	5,5	3,1	4,4	5,7	4,5	3,3
Autonomoak, beren kabuz moldatzeko gai									
Oso	16,7	17,0	16,3	21,8	15,3	14,0	15,1	15,7	18,9
Nahikoa	41,2	41,7	40,8	40,2	39,3	43,5	42,7	41,3	40,4
Ez oso	35,3	33,6	37,1	32,2	37,8	35,6	35,0	36,0	34,2
Batere ez	5,7	6,5	4,7	5,3	5,8	5,8	5,1	6,3	4,8
Ed/Ee	1,2	1,2	1,1	0,5	1,8	1,2	2,1	0,7	1,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100



www.gaztebehatokia.euskadi.eus



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud